



IRAKURKETA-ULERMENA

ESKIMALEN JANTZIAK



ESKIMALAK BIZI DIREN LEKUAN HOTZ HANDIA EGITEN DU. ZEROZ BEHETIK 50 GRADURAINO IRISTEN DA TENPERATURA LURRALDE HAIETAN.

HOTZ HONI AURRE EGITEKO BI BOTA PARE JANZTEN DITUZTE, BATA BESTEAREN GAINEAN. GALTZAK, BEROKIA ETA TXANOA HARTZ ZURIAREN EDO FOKAREN LARRUAZ EGITEN DITUZTE.

EMAKUMEEK HORTZEKIN BIGUNTZEN DUTE LARRUA, GERO JOSI AHAL IZATEKO.

JAI EGUNETAN, EMAKUMEEK JANTZI DOTOREAK JANZTEN DITUZTE. ALKANDORAREN GAINEAN KAPA MOTZ ETA KOLORETSU BAT JANZTEN DUTE.

NESKA GAZTEEK BOTA ZURIAK ERAMATEN DITUZTE ETA EMAKUME EZKONDUEK, BERRIZ, BOTA GORRIAK.

AUKERATU ERANTZUN ZUZENA.

* ESKIMALEN LURRALDEAN EGITEN DU:

- ☐ BERO HANDIA.
- ☐ HOTZ HANDIA.
- ☐ HAIZE HANDIA.

* OINETAN HOTZA EZ IZATEKO, JANZTEN DITUZTE:

- ☐ BI BOTA PARE.
- ☐ BI ZAPATILA PARE.
- ☐ BOTA PARE BAT.

* EMAKUMEEK HORTZEKIN LARRUA:

- ☐ PUSKATZEN DUTE.
- ☐ GARBITZEN DUTE.
- ☐ BIGUNTZEN DUTE.

* KAPA JANZTEN DUTE:

- ☐ ALKANDORAREN GAINEAN.
- ☐ JERTSEAREN GAINEAN.
- ☐ KAMISETAREN GAINEAN.

* NESKA GAZTEEK ERAMATEN DITUZTE:

- ☐ BOTA GORRIAK.
- ☐ ZAPATILA ZURIAK.
- ☐ BOTA ZURIAK.